

PUNTA BEGOÑA Galeriak

PUNTA BEGOÑA 10 IRUDITAN

Etorkizunari begira dagoen ondare historikoa

2024-2025 biurtekoak bultzada handia emango dio Punta Begoña Galeriak Zaharbertzeko eta Balioztatzeko Proiektuari. Punta Begoña Fundazioaren patronatuak, udal talde guztietako ordezkariak osatua, azaroko bilkuran 2024ko Jarduera Plana onartzea erabaki du, datozen urteetarako ekintza-ildoak zehaztuko dituena. Monumentuaren funtzionalizazio handiagoa lortzeko obran aurrera egitea da helburu nagusia, eta, horrela, Punta Begoñan jarduera berriak garatu nahi dituzten gizarte-, kultura- eta hezkuntza-kolektiboen eskari handiari erantzutea.

Azken hilabeteotan, proiektua aitzindaria izan da Garapen Jasangarriko Helburuak kultura-ondarearen bidez betetzen eta horregatik nazioartean ziurtagiria jaso du. Bizkaiko turismo-

baliabide katalogatu gisa ere hautatu du Foru Aldundiak, edo Euskadiko turismo-jardunbide egokien eredu gisa, Basquetourrek. Valentziako Generalitateak eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoak graduondoko ikasketetan sartu dute proiektua, hiri bizigarriak sortzen laguntzeko erreferentzia gisa. Iritzi-azterlanek ere agerian utzi dute herritarrek gehien aitortzen duten proiektuetako bat dela.

Fundazioaren Patronatuak jarduera-ildo horietan aurrera egitea erabaki du, Punta Begoña, gero eta gehiago, gizartearen zerbitzura dagoen monumentu-, paisaia- eta ekipamendu-gune gisa uler eta bizi dadin.



Hilabete honetan, abenduan, hasiko da antzeppen-aretoa kultura-, gizarte- eta prestakuntza-gune bihurtzeko obran 1. fasea.

Esku-hartze konplexua izango da, itsaslabarraren egonkortasun-arazoak konponduko dituena eta erabilera osagarriko azalera handitzea ahalbidetuko duena.

Obraren 2. faseari hasiera emango dion proiektua amaitzen ari da, dekorazioak eta aretorako sarrera monumentalak ardatz dituena, eta inpaktu bisual handia duena.

Aretoko esku-hartze artistikoetarako oinarriak ezarriko dituen diseinua zaharbertze enblematikoetan parte hartu duen talde aditu batek garatu du, hala nola Gasteizko Katedral Zaharrekoan edo Granadako Alhambra-koan.



Urte hauetan zehar, hezkuntza maila guztietako milaka ikaslek jaso dute prestakuntza espezifikoa eta praktikoa Punta Begoñan.

Esperientzia hau, Salamancako Unibertsitateak, Complutensek, Valentziako Politeknikak eta CSICek «ezagutza gizarteari transferitzeko eredu» gisa aitortua, Punta Begoñako Hezkuntza Programara eramaten ari dira (Lehen Hezkuntzarako, Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako hainbat unitate didaktiko, Getxoko ondare historikoaren bidez, historia, artea, geologia, kimika eta abar lantzeko). 2024an argitaratuko da programa eta bere lehen unitate didaktikoak dagoeneko martxan daude.

2023ko joerari jarraituz, udalerriko kultura- eta gizarte-jarduera nabarmeneko presentzia izango dute Punta Begoñan 2024an.

Hain espazio berezia izateak sormena eta aniztasuna sustatzen ditu proposamenetan, eta obraren aurrerapenaren arabera erantzun nahi zaie proposamen horiei. GetxoPhoto, GetxoModa, Ertibil Bizkaia, GetxoMeeting, erakusketak, aurkezpenak, formatu txikiko kontzertuak eta abarren presentziak Punta Begoñak espazio bizi gisa duen potentziala aurreratzen du eta 2024ko agenda iragartzen du.



2023an, zinema-ekoizleen, telesailen, jaialdien, bideo-klipen, dokumentalen eta gaikako programen bisitak eta proposamenak egin dira, Punta Begoña filmatzeko leku izateko.

2024an, bisita horietako batzuk ikus-entzunezko produktuetan islatuko dira, eta produktu horiek Punta Begoña eta Getxo zabaldu eta beren balioa handituko dute.

Laster estreinatuko da, adibide gisa, RTVEren «Un país para escucharlo» programa. Bertan, Galeriak aukeratu dituzte Kantauri isurialdeko agertoki ikoniko gisa, eta bertan izan da Ariel Rot.

Berrito ireki zenetik, 80.000 bisitarien kopurua gaindituko du Punta Begoñak 2024an.

Fundazioaren Patronatuak markatutako ildo argia da: Punta Begoñako turismoa herritarrei zerbitzuen kalitatea ematearen ondorio da.

Hala aitortu du Basquetourrek, proiektua Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa sartuz eta 2023an Jardunbide Egokien adibide gisa nabarmenduz.



Irisgarritasun fisikoaren irizpidearekin batera, 2024k erabateko erabilgarritasuna emango dio esperientzia digital berriari, Punta Begoña edozein tokitatik eskuragarri egiten duena bere webgunearen bidez.

360º «Lehen eta orain» irudiekin obraren bilakaera, hiru hizkuntzatan eta zeinu-hizkuntzan gidatutako bisita birtual bat, barne hartzen du, baita 360º ibilbide bat, hiru hizkuntzatan eskuragarri dauden informazio, argazki, bideo eta pasadizoekin eta audiodeskribapenarekin.

Erakundeek Itsasadarraren ardatz estrategikoa indartzeko eta errentagarri bihurtzeko hainbat proiektu lantzen dituzte.

2023an, Fundazioak jarduketak egin ditu Punta Begoñak kokalekuaren eta historiaren arabera dagokion lekua har dezan (Itsasadarraren Ondare Immaterialari buruzko Erakusketa, Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin, Itsasmuseumekin eta elkarteekin egindako lankidetzak, eta Galeriak industria-ondareari lotutako top baliabideen artean sartzeari Bilbao-Bizkaia Iron River proiektuan).

Posizionamendu estrategiko horretan Fundazioak urteak daramatza lanean, eta 2024an akordio instituzionalen bidez indartuko da.



Hainbat erakundeek eskatzen dute Punta Begoña Fundazioaren aholkularitza, Punta Begoñako proiektua ondarea kudeatzeko eredu gisa aitortu baitute.

Jarduera hau estatutuetan jasota dago, eta zeharkako ezagutza, diru-sarrerak eta sinergia positiboak sortzeko aukera ematen du, prozesua indartzeko. Une honetan abian da Sestaoko 1. Labe Garaia lehen-goratzeko eta balioztatzeko aholkularitza.

Arkeologi Museoa Punta Begoña hautatu du Bizkaiko Ikerketa Arkeologikoko Proiektu Nabarmen gisa, duen irismenagatik, ikuspegi integralagatik eta bere aurkikuntzen balioagatik.

Indusketaren aprobejamendu sozialerako, abendu honetan Neolitikoko aztarnategiaren garrantzia herritarrei helarazteko proiektu bat hasiko da, haren zabalkunde eta museo bihurtzeko bidez.

